

Durango eguneroko bizitzarako hirigintzarantz



DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir

Tipi

Prozesuaz eta herritarren ekarpenez

Durangoko Hirigintza Antolamendu Plan Orokorrean (HAPO) genero ikuspegia txertatzeko prozesua 2020ko ekaina eta 2021eko otsaila bitartean gauzatu da, eta bi fase nagusi izan ditu: egungo hiri-inguruaren diagnostikoa osatzea eta hirigintza barneratzailerantz pausuak ematen jarraitzeko helburu eta ekintzak zehaztea.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa izan da prozesu guztian zehar, eta Covid-19aren pandemiak aurreikusitako ekintzetan aldaketak eragin dituen arren, bai diagnostikoan eta bai proposamen fasean mekanismo parte-hartzaileak ahalbidetu ditugu. Lehen fasean galdetegi bat ireki dugu herritarren egunerokotasunean sakontzeko, eta paraleloki tailer itxiak antolatu ditugu emakume zaintzaile eta migratuekin beraien ikuspegi eta behar konkrituak ezagutzeko. Bigarren fasean beste galdetegi bat zabaltu dugu zenbait hobekuntza proposamenen inguruan herritarren iritzia jasotzeko, eta baita proposamen berriak biltzeko.

Herritarren ekarpenen edukiei dagokienez, hurrengo gaien ingurukoak izan dira:

- Kaleko harreman espazioak hobetzeko proposamenak: eserlekuen kalitateak eta kokapena, gune estalien beharra, haurrentzako jolas-guneen hobekuntza, naturaren presentzia etab.
- Ekipamendu berrien beharra: frontoien erabilera ahalbidetzea, kirol ekipamendu berriak, nagusientzat eta gazteentzat elkarguneak, erabilera eskasa duten ekipamenduen aktibazioa (merkatua eta Landako Erakustazoka).

- Oinezko mugikortasuna hobetzeko proposamenak: kale-argiztapenaren intentsitatea handitzea, pabimentuaren konponketa edo aldaketa, espaloen zabalera handitzea, zebra-bideen kokapena eta ikusgarritasuna.
- Bizikleta mugikortasuna hobetzeko proposamenak: bidegorriaren konektibitatea, puntu arriskutsuak, bizikleta aparkalekuak.
- Segurtasuna: bakardadea eta beldur sententzioa sortzen duten guneak, eta kotxeen presentziagatik segurutzat hartzen ez direnak.
- Auzo konkrituen inguruko problematika orokorrak: Faustebekoa etxetaldea, Bustintza-Ziritza ingurua, Juan de Itziar auzoa eta Alde Zaharra.
- Inguruaren zaintza eta mantenua: garbitasuna, zabor-edukiontzien kokapena, lorategien mantenua, tren zaharraren hesia kentzea.
- Herritarren parte-hartzea prozesu urbanistikoetan: auzo-bilerak, udal-langileekin harremana, gardentasuna eta kontuak ematea, mekanismo analogikoak mantentzea.

Herritarren ekarpenen izaerari dagokienez, aipatu beharra dago gehienak proposamen konkritu eta kokatuak izan direla (X kalean X arazo dago). Ondorioz, jasotakoaren azpian dauden problematika orokorrak identifikatzeko estrapolazio lana egin da, HAPOaren Aurrerakin dokumentuaren izaerarekin bat egiteko eta bertan txertatzea ahalbidetzeko. Hala ere, jasotako proposamen konkrituak antolatu eta dokumentu bereizitu batean bildu ditugu Udaletxeko arduradun politiko eta teknikoei helarazteko.

HAPOaren Aurrerapen dokumentuan genero ikuspegia txertatzeko proposamenak

Hurrengo orrialdeetan HAPOaren Aurrerakin Dokumentuaren helburuak eta edukia elikatuko dituzten jarduera-ildoak jasotzen dira, prozesu honen emaitza nagusia direnak.

1. ardatza/

Hiri-egitura eta bizitegi-inguruneen kalitatea: hiri-eredu trinkoa, jarraitua, konplexua eta kohesionatua

1. helburua/

Artifizializatu ez diren lurzoruetan etxebizitza-garapen berriak sortzea saihestea, zehazki, udalerriaren hegoaldeko lurzoru urbanizagarrietan.

2. helburua/

Genero-ikuspegia sistematikoki eta zeharka txertatzea bizitegietarako hiri-lurzoruen garapen berriak planifikatzeko prozesuetan.

3. helburua/

Egungo hiri-bilbea jostea.

4. helburua/

Auzoen, eguneroko ekipamenduen eta merkataritza-gune nagusien arteko lotura hobetzea.

5. helburua/

Jarduera ezberdinak hurbil dituzten ingurune mistoak sustatzea.

6. helburua/

Auzoak birgaitzea eta hobetzea.

2. ardatza/

Mugikortasuna eta espazio publikoa: kaleak guztiontzat

7. helburua/

Oinezkoen mugikortasun autonomia sustatzea eta lehenestea.

8. helburua/

Kalea egoteko eta elkartzeko leku gisa indartzea.

9. helburua/

Kaleak naturalizatzea eta parkeen sarea hobetzea.

1. ardatza/

Hiri-egitura eta bizitegi-inguruneen kalitatea: hiri-eredu trinkoa, jarraitua, konplexua eta kohesionatua

1. helburua/

Artifizializatu ez diren lurzoruetan etxebizitza-garapen berrien sorrera saihestea, zehazki, udalerriaren hegoaldeko lurzoru urbanizagarrietan.

2. helburua/

Genero-ikuspegia sistematikoki eta zeharka txertatzea bizitegiatarako hiri-lurzoruen garapen berriak planifikatzeko prozesuetan.

2.1 jarduketa/

Sektore berrien garapen-prozesuetarako kontuan hartu beharreko zenbait jarraibide prestatzea, genero-zeharkakotasuna sistematikoki sartuko dela bermatzeko. Genero-ikuspegia hasieratik eta hiri-plangintza prozesuen fase guztietan kontuan hartzea funtsezkoa da; horregatik, jarraian, labur aipatzen dira kontuan hartu beharreko fase posibleak eta gauzatu beharreko ekintza posibleak:

- 1. fasea. Garatu beharreko lurzoruaren helburuak eta programa formulatzea: helburuak eta espektatibak identifikatzea; oinarritzako informazioa biltzea; jarraipen-taldea ezartzea; eragileak sentsibilizatzea; prozesu parte-hartzailea garatzea.
- 2. fasea. Proposamena eta dagokion plana egiteko lehiaketa edo lizitazioa prestatzea¹: diseinuaren helburuak formulatzea, lizitazioaren dokumentuak, epaimahaiaren osaera.
- 3. fasea. Hiri-diseinuaren edo master planaren proposamenak ebaluatzea: ebaluazio-irizpideak eta adierazpen-metodoak lantzea.

Plangintza tresna

HAPOn dokumentu independente gisa txertatu, Eusko Jaurlaritzak onartu ondoren, edo udal-ordenantzaren bidez.

¹ Eremu berrietarako plana garatzeko lehiaketa bat antolatu behar den kasuetan bakarrik.

2.2 jarduketa/

Artifizializatu gabe dauden udalerriaren hegoaldeko hiri-lurzoruak garatuz gero, 2.1 jarduketan alpatutako jarraibideak jarraitzea, garapeneredu konplexu eta interesgarriak lehenetsi daitezkeen eguneroko bizitzarako; eta baztertu daitezkeen hiri-espazioaren bizitza ahultzen dutenak, mantentze-lanak zailtzen dituztenak eta bizitasun faltagatik segurtasunik ezaren sentrazioa ematen duten espazioak sor ditzaketenak.

3. helburua/

Egungo hiri-bilbea jostea.

3.1 jarduketa/

Plangintza tresna

Lurzoru berriak artifizializatu eta hiri-orbana zabaldu aurretik, hiri finkatuan dauden zueloen garapenari lehentasuna ematea eta hiri-bilbea eremu hauetan betetzea: tren-geltokiaren ingurunea (PERI-1 trenbidea), San Faustorekin lotura (PERI-2 San Fausto), Bustuntza-Ziritzako blokeekin lotura (PERI-3 San Roke) edo Juan Itziarke UE-10 Montoreta ingurua.

HAPOaren helburu gisa txertatu.

3.2 jarduketa/

Iragazkortasuna eta lotura handitzea herriko zenbait puntutan, hala nola: tren-tzadura zaharreko zatietan, herriko gunerik altu eta lauenen artean (erdialdea - Santikurutz eta San Fausto - hilerria - Tabira), edo Faustebekoa taldean eta haren inguruan.

HAPOan txertatu.

4. helburua/

Auzoen, eguneroko ekipamenduen eta merkataritza-gune nagusien arteko lotura hobetzea.

4.1 jarduketa/

Plangintza tresna

Auzoak ekipamenduekin eta erdigunearekin lotzen dituzten kale nagusien ezaugarriak hobetzea, eta, horretarako, kale horiek bete beharko lituzketen gutxieneko ezaugarri batzuk zehaztea: espaloien 2 m-ko gutxieneko zabalera, zuhaitzak, oinezkoentzako pasabideak oinezkoen ibilbidearen arabera, eserlekuak 50-100 metrotik behin, trafikoa baretzea, argiztapena handitzea. Kale horiek honako hauek dira: Sanrokebide, Fray Juan de Zumarraga, Pedro Astarloa, Zeharmendieta, Antso Estegiz eta Tabira.

Urbanizazio-ordenantza.

4.2 jarduketa/

Juan Itziarko auzoko irisgarritasuna hobetzea, dagoen desnibela konpontzen lagunduko duten estrategiak ezarri. Arrapala mekanikoak jartzeko aukera aztertzea.	Irisgarritasun Plana.
---	-----------------------

4.3 jarduketa/

Auzoak, ekipamenduak eta merkataritza-gune nagusiak bidegorri bidez lotzea, Sanrokebide, Fray Juan de Zumarraga eta Tabira arteko ibilbidea handituz.	HAPOan txertatu.
---	------------------

5. helburua/

Jarduera ezberdinak hurbil dituzten ingurune mistoak sustatzea.

5.1 jarduketa/

Plangintza tresna

Askatasun etorbideko, Zeharmendieta kaleko eta Antso Estegiz zumardiko merkataritza-ardatzak indartzea eta horiei jarraipena ematea.

- Dauden merkataritza-ardatzetako lokal hutsetan saltoki berriak sortzea.
- PERI-3 San Roke: dagoen antolamendua aldatzeko aukera badago, gutxieneko merkataritza-lokalak bermatzea Askatasun etorbideko fatxada osatzen duten blokeetan.

Diru-laguntza lerroa sortu.

PERI-a aldatu.

5.2 jarduketa/

Gutxiegi erabiltzen diren ekipamenduen aktibazioa eta erabilera anitza sustatzea, hala nola, Landako Erakustazoka edo Merkatu plaza.	HAPOan txertatu.
--	------------------

5.3 jarduketa/

Bizitegi-eraikin berrietan, behealde irekiak sortzea kalearekin lotuta, honako estrategia hauen bidez: behe solairuak kalerantz irekitzea perimetroan; merkataritzarako gutxieneko ehuneko bat bermatzea; kultura-, gizarte- edo kirol-erabilerarako instalazio komunak sortzea.

- PERI-2 San Fausto: bloke irekiko etxebizitzak aurreikusi dira. Gainera, ekipamendu komunitario pribatuak aurreikusi dira Zeharmendieta kalearekin lerrokatutako blokeen beheko solairuetan. Faustokalearekin lerrokatutako blokeen behealdeetan, berriz, etxebizitzak aurreikusten dira. Faustokalean dago autobus geltokia eta eguneroko pasabidea da.
 - Faustokaleko fatxada sortuko duten etxabeetan erabilera partekatuko espazioak sustatzeko aukera baloratzea, fatxada opaku berririk sortu ez dadin.

PERI-a aldatu.

Urbanizazio-ordenantza.

HAPOari erantsitako dokumentua "HAPOko diseinu-irizpide orokorrak bizitegi-ingurune berriak eraberritu eta eraikitze" izeneko.

- PERI-3 San Roke: etxadiko eta bloke irekiko etxebizitzak aurreikusi dira. Etxadi itxia eta babes ofizialeko blokeak eginda daude. Gainera, ekipamendu bat aurreikusi da. Ez da zehazten behealdeetan etxebizitzaz bestelako erabilerarik.
 - Egiteke dauden blokeetan, behealdeak kalera irekitzeko aukera baloratzea, bai etxebizitza-blokeen erabilera partekatuko espazio batzuk sortuz, bai lorategietako itxiturak diseinu edo ordenantza bidez arautuz.

5.4 jarduketa/

Eraikin berrietan (etxebizitzak, zuzkidurak, etab.), eraikinak kalearekin lotzea eta fatxada dinamikoak sortzea, honako irizpide hauek aplikatuta:

- Blokeen luzera mugatzea (150 m baino gehiagok hesi-efektua areagotzen dute).
- Eraikinen eta kalearen arteko harreman bisuala sustatzea (6 solairu baino gehiagorekin harremana hautsi egiten da).
- Saihestu fatxada homogeneoak eta opakuak.

Urbanizazio-ordenantza.

HAPOari erantsitako dokumentua, "Eraikin berriak eraberritu eta eraikitzeko HAPOko diseinu-irizpide orokorrak" izenekoak.

6. helburua/

Auzoak birgaitzea eta hobetzea.

Actuación 6.1/

Alde Zaharrean hainbat hobekuntza egitea, hala nola etxebizitzak birgaitzea eta irisgarritasuna hobetzea (zoladura berrikustea eta segurtasun pertzepzioa hobetzea).

Plangintza tresna

HAPOan ez sartu.

2. ardatza/

Mugikortasuna eta espazio publikoa: kaleak guztiontzat

7. helburua/

Oinezkoen mugikortasun autonomia sustatzea eta lehenestea.

7.1 jarduketa/	Plangintza tresna
Trafikoa baretzeko estrategiak martxan jartzea Zabalarra, Fray Juan de Zumarraga, San Roke, Francisco Ibarra eta Herriko Gudarien kaleetan.	HAPOan ez sartu.
7.2 jarduketa/	
Bidegorriarekin edo garraio publikoarekin lotutako aparkaleku-poltsak sortzea, auzoen barrualdeetan eta udalerrian autoz egiten den mugikortasuna murrizteko.	Mugikortasun Plana bideragarri egiteko beharrezkoak diren "disuasio-aparkalekuak" sartu HAPOan.
7.3 jarduketa/	
Oinezkoentzako pasabideetan ikusgarritasuna hobetzea, espaloia aparkaleku-lerroraino zabalduz eta aparkatutako autoek ikuspena oztopatzea saihestuz.	Urbanizazio-ordenantza. Praktika-onen txostena.
7.4 jarduketa/	
Modu autonomoan edo laguntzarekin ibiltzeko baldintzak hobetzea, ahal dela auzoak beraien artean eta ekipamenduak auzoekin lotzen dituzten kaleetan: gutxienez 2 m-ko zabalera duten espaloiak eta eserlekuak 50-100 metrotik behin.	Irugarritasun Plana. Hiri diseinuari buruzko ordenantza.
7.5 jarduketa/	
Kaleen irugarritasuna hobetzeko orduan, lehenetasuna ematea ekipamenduak elkarren artean eta auzoekin lotzen dituzten kaleei.	Irugarritasun Plana. Udal inbertsioen lehenestea.
7.6 jarduketa/	
Zoladuraren baldintzak hobetzea, jarraitua eta irristakorra izan ez dadin, pertsona guztien segurtasuna eta irugarritasuna bermatzeko.	Irugarritasun Plana. Udal inbertsioen lehenestea.
7.7 jarduketa/	
Herriko argiztapen orokorra handitzea, arreta berezia jarritz auzoak eta ekipamenduak lotzen dituzten kaleei eta oinezkoentzako pasabideei.	Udal inbertsioen lehenestea.

8. helburua/

Kalea egoteko eta elkartzeko leku gisa indartzea.

8.1 jarduketa/

Bitarteko espazioak sortzea, ekipamendu publikoen sarreretan topogitea eta itxaronaldiak ahalbidetzeko, eta, horretarako, leku horiek bete beharko dituzten gutxieneko ezaugarri batzuk zehaztea:

- Itxaronaldirako bankuak jartzea.
- Zirkulazio baredun gune izendatzea edo espaloiaren gutxieneko zabalera 3,5 m ezartzea.

Plangintza tresna

HAPOari erantsitako dokumentua
"Ekipamendu berriak eraberritu eta eraikitzeko HAPOko diseinu-irizpide orokorrak" izenekoak.

8.2 jarduketa/

Parkeak, plazak edo harremanetarako espazioak atsedenerako eta topaketarako bankuz hornituzekoan, kontuan hartu eguzkitzapen-baldintzak eta altzarien diseinua eta antolamendua.

HAPOari erantsitako dokumentua
"Parke berriak eraberritzeko eta eraikitzeko HAPOko diseinu-irizpide orokorrak" izenekoak.

8.3 jarduketa/

Emakumeen segurtasun-pertzepzioa aintzat hartzea, eta prozesu honetan zein Hiri Debekatuaren Mapan identifikatutako puntu beltzak hobetzen jarraitzea, besteak beste, honako ekintza hauek eginez: argiztapena hobetzea, ingurunea zaintzea eta garbitzea, ikusmena oztopatzen duten elementuak kentzea, etab.

Hiri Debekatuaren Mapa.
Udal inbertsioen lehenestea.

9. helburua/

Kaleak naturalizatzea eta parkeen sarea hobetzea.

9.1 jarduketa/

Jolaserako, egonaldiako eta atsedenerako espazio estaliak sortzea.

Plangintza tresna

Urbanizazio-ordenantza.
HAPOari erantsitako dokumentua
"Parke berriak eraberritzeko eta eraikitzeko HAPOko diseinu-irizpide orokorrak" izenekoak.

9.2 jarduketa/

Dauden parkeak birgaitzea eta hobetzea, altzariak berrituz, zoladura hobetuz eta jolasguneak birpentsatuz.

HAPOari erantsitako dokumentua
"Parke berriak eraberritzeko eta eraikitzeko HAPOko diseinu-irizpide orokorrak" izenekoak.

9.3 jarduketa/

Ibaiertzaren eta bere ingurunearen arteko harremana eta iragazkortasuna handitzea, herritarren erabilerarako eta gozamenerako gaituz.

HAPOan sartu.

Tipi

tipigara.co

[@tipi_koop](https://twitter.com/tipi_koop)

kaixo@tipigara.co